



TopaGune ikastaroa


III. Edizioa

Esperientziaren ahotsak.

Pertsonen parte-hartzea eta hautaketa
laguntzetan, zerbitzuetan eta
erakundeetan



Miramar Jauregia
Donostia



III. Edizioa. Esperientziaren ahotsak.

Pertsonen parte-hartzea eta hautaketa laguntzetan, zerbitzuetan eta erakundeetan



Deskribapena

Uda Ikastaro hau gizarte partaidetzarako, hausnarketarako, ikaskuntzarako eta ekintzarako gune gisa planteatzen da, pertsona guztien parte-hartze erreal eta eraginkorraren inguruan, arreta berezia jarritz laguntza gehiago behar dutenengan. Bereziki pertsona horiei zuzendutako ikastaroa bada ere, begirada zabala eta zeharkakoa eskaini nahi du.

Ikastaroa bi ardatz nagusiren inguruan egituratzen da. Alde batetik, gizartean parte hartzeko gune irekia izan nahi du, hainbat arlotako profesionalek, zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak, familiakoek eta, oro har, herritarrek bat egin dezaten. Bestetik, parte-hartze sinbolikoa gainditzen duen ikuspegia proposatzen du, laguntzen diseinu eta kudeaketan, baliabideetan eta gobernantza egituretan, lankidetzan oinarritutako ikuspegi estrategiko eta praktikoa sustatuz.

Bi egunetan zehar, pertsonak beren planetan eta bizi-proiektuetan, erakundeetan eta administrazioetan, eta gizarte egituran parte har dezaten sustatzeko estrategiak, tresnak eta metodologiak identifikatu eta jorratuko dira; zehazki, gobernantza parte-hartzailean, autoprodukzioan, koprodukzioan eta laguntzen pertsonalizazioan lan egingo da.

Ikastaro honek entzuteko eta parte-hartzeko guneak uztartuko ditu esperientzia inspiratzaileen, elkarriketarako espazioen eta ariketa praktikoen bidez, adituekin, erakundeetako arduradunekin eta ikastaroko parte-hartzaileekin. Horrekin batera, autodeterminazioa, ahalduntzea eta pertsonen eta haien laguntza zirkuluen parte-hartzea sustatzeko funtsezko elementuak aztertuko dira hainbat eremu eta mailatan.

**TopaGune
ikastaroa**

Ikastaro hau TopaGune motakoa da, parte-hartzea sustatzera bideratutako ikastaroei UIKek ematen dien izendapena. Bere diseinu metodologikoa elkarlanean garatzen da: UIKeko zuzendaritza akademikoaren eta ikastaroaren zuzendaritzaren eta erraztailearen artean, hausnarketa- eta sorkuntza kolektiborako dinamika parte-hartzaileak sustatzeko teknika egokienak zehaztuz.

Horregatik, ikastaro hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako eta Gobernantzako Departamentuek elkarrekin bultzatzen dute.

III. EDIZIOA

ESPERIENTZIAREN AHOTSAK



1. Eguna

Ekainak 24, 2025



- 09:30-09:45 Inaugurazio instituzionala**
- ▶ Maite Peña. Zainketa eta Gizarte Politiketako Diputatua
 - ▶ Patxi Leturia. GFA.
 - ▶ Idoia Otaegui. UIK.
 - ▶ Maider Kortajarena. UIK.
- 09:45-10:05 Gaiaren sarrera: pertsonen parte-hartze errealaren arlo pertsonalean, erakundeetan eta komunitatean**
- ▶ Koldo Aulestia. Alzheimerren arloan 25 urteko esperientzia.
- 10:05-10:30 Parte-hartze errealari buruzko hausnarketa kolektiboa: talde elkarrizketak**
- ▶ Parte-hartzaile edo bertaratutako pertsona guztien artean.
- 10:30-11:00 Esperientzia inspiratzaileak (I). Bizitza-proiektuetan parte hartzea**
- ▶ «Hau da nire bizitza, eta puntu». Pertsonen Zentratutako Plangintza. Jon Ander López. Goyeneche Fundazioa.
 - ▶ "Zuk jakitea nahi dut" gida. Olaia Arana / esperientzia duen pertsona zehaztear.
- 11:00-11:30 Atsedena - kafea**
- 11:30-12:00 Esperientzia inspiratzaileak (II). Bizitzako proiektuetan parte hartzea**
- ▶ Bizitza Independentterako Programa. Mari Carmen Pagoaga. Atzegi.
 - ▶ Norberak Zuzendutako Laguntzen Proiektu Pilotua. Proiektuko parte-hartzaile bat zehaztear (online) / Amalia San Román. Confederación Plena Inclusión España.
- 12:00-13:00 Esperientzien inguruko hausnarketa kolektiboa: talde elkarrizketak**
- ▶ Parte-hartzaile edo bertaratutako pertsona guztien artean.
- 13:00-13:15 Itxiera**


III. EDIZIOA

ESPERIENTZIAREN AHOTSAK



2. Eguna

Ekainak 25, 2025



- 09:30-09:40** **Ongi etorria eta eguneko programa**
- Patxi Leturia. GFA.
 - Inti Fraile. SIIS.
- 09:40-10:30** **Hitzaldi dinamikoa: parte-hartze errealaren erakundeetan eta komunitateetan**
- Nuria Ambros. Numa 360.
- 10:30-11:15** **Esperientzia inspiratzaileak (I). Erakundeetan eta politika publikoen diseinuan parte hartzea**
- Matia Fundazioaren Eskubideen Batzordea. Esperientzia duen pertsona zehaztear.
 - Aspace-ko Batzordea. Esperientzia duen pertsona zehaztear.
 - Estatuko Desinstituzionalizazio Estrategian parte hartzea. Amparo Muñoz.
- 11:15-11:45** **Atsedena - kafea**
- 11:45-12:45** **Esperientzia inspiratzaileak (II). Parte-hartze komunitarioa**
- Auzoan Zerbitzua. Esperientzia duen pertsona zehaztear. Goyeneche Fundazioa.
 - Usurbilgo Zaintza Ekosistema. Esperientzia duen pertsona zehaztear.
- 12:15-13:15** **Esperientzien inguruko hausnarketa kolektiboa: talde-elkarrizketak**
- Parte-hartzaile edo bertaratutako pertsona guztien artean.
- 13:15-13:30** **Ikastaroaren itxiera.**
- Iruñe Galarraga. GFA.
 - Carmen Esteban. Liburu Berdearen Jarraipen Batzordea.
-  ➤ Ikastaroa amaitzeko talde argazkia.

BULTZATZAILEA:



LANKIDETZAN:

